

JON BARRIOLA ETA JOXE RAMON INSAUSTI -ERLEZAINAK-

“Erlezain txikien aldeko apustua egin da Gipuzkoan”

■ Gaur da Erlezain Eguna Zegaman ■ Gipuzkoako Ezti Txapelketarako Juan Mari Aizeaga klasifikatuta dago ■ Hernani inguruan 20 bat erlezain daude ■ Erle autoktonoa berreskuratzen ari dira.

ERLEZAIN Eguna da gaur, Zegaman. Gipuzkoako Erlezain Elkartek antolatzen du. Bertan erleari eta eztiari buruzko gauza asko ikusiko du inguratzen denak.

Gipuzkoako IV. Ezti Txapelketa ere jokatuko da. 21 ezti daude apartatuta finale-rako eta bat hernaniko Joxe Mari Aizeagarena da.

Hernani inguruan 20 bat erlezain daude: J.M. Aizeaga, Hiazinto Fernandorena, Antonio Goikoetxea, Jon Barriola, Joxe Ramon Insausti... Hernaniko Kronikak azken biak harrapatu ditu mundu honi buruz zerbait gehiago jakin nahian.

■ **KRONIKA:** Zer garrantzia dauka erleak zuentzat?

JOXE RAMON INSAUSTI: Erlea guztiontzat da inportantea. Edozein landarek polinizatu beharra dauka fruta emateko (harrak emea emaldu). Prozesu honetan erlea ezinbestekoa da. Erleak landarea polinizatzen du eta landareak *nektar*-a ematen dio erleari. Horri eskerrak erleak ezti egin ahal izango du; eta guk fruta eta ezti jan.

■ **Biak zarete Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kideak. Zein lanetan ari zarete?**

JON BARRIOLA: Gipuzkoan erlezain txikiak gera gehienak. Ez gera profesionalak eta Elkartean ere horren aldeko apustua egin degu, inor ahaztu gabe, noski. Txikiak gera, baina, asko. Horrela Gipuzkoako txoko guztiak bete ditzakegu. Guretzat erlezainak mantendu eta indartzea da



Joxe Ramon Insausti traje haundia jantzita erlauntzak bixitatzen.

inportantea eta ahal degun guztian laguntzen diegu: informazioa eman, erlezaintzarako beharrezko materiala eskaini, gaitzaren kontrako tratamenduak eskuratu, eztiolak egiten lagundu... Inbestigazioan ere ari gera: erle autoktonoa zaindu eta indartu nahi degu... Diputazioak eta Unibertsitateak laguntzen digute.

■ **Hemengo erlea nahiko galduta egon da. Esplikatu pixkat zein izan den arazoa.**

J.B: *Erle beltza* deitzen zaio hemengo azpibariatetari. Urtetan izan da joera kanpoko erlea ekartzekoa eta horrek nahasketa (*hibridazioa*) ekarri du. European oso nahastuta dago. Orain ari gera ikusten, lekuan lekuko klaseak hobeto eusten diela gaitzei eta abarrei eta estimatzen dena bertakoa

da. Hemen *Erle beltza* aurkitu den bi lekuetan gaitzak jo gabe dagoela ikusi da: edo gaitza sartu ez delako edo erleak berak eusten diolako. Kuestioa da guretzat oso inportantea dela nahastu gabeko erlea edukitzea; horregatik ari gera indartu nahian.



Jon Barriola
(Erlezain Elkarteko diruzaina)

“Ganaduzaleak gerla pentsatu behar degu. Gure lanak arraza eta produktua mejoatzea behar du”.

■ **Eztia zeren arabera izaten da diferentea?**

J.R: Inguruaren arabera. Inguruan akazia ala frutalak baditu ezti fina aterako da; erromeroa ala txilarra baditu gogorragoa, etab... Erle klasearen arabera produkzio kantitatea egon daiteke, ez kalitatea.

■ **Zegamako txapelketan hernaniar bat ere bada, ezer ekarriko ote du?**

J.B: Beno, hori ez dago esaterik, baina, entzun degu badela ezti fin bat Aparraingo akazien *nektar* ikutua eduki lezakeena-edo. □

ZUHAITZ EGUNA

Gaur nagusiek aldatuko dituzte arbolak

ATZO gaztetxoak ibili ziren Aparrairen arbolak aldatzen. Gaur nagusien txanda da. Zita: goizeko 08:00etan Gudarien plazan. □

Trialsin' txapelketa gaur Fagollagan

GIPUZKOAKO txapelketako proba jokatuko dute gaur Fagollagan (bidetik, errioz bestekaldera). Hogeitamar bat izango dira probatuko direnak, baina, horrez gain gaztetxoek izango dute kirola probatzeko aukera ere. Gaur 10:00etan. □

Moto Kross proba jokatuko da gaur Aranon

ARANON moto kross proba jokatuko dute gaur goizeko 11:00etan hasita. Buruz buru eta taldeka neurtuko dira. Proba 18 kilometroko ibilbideari 3 buelta ematea izango da, eta lehen hirurek izango dituzte sariak. □

Gimnasia erritmiko exhibizioa Kiroldegian

HERNANIKO gimnasta gazteak exhibizioa egingo dute gaur kiroldegian. 10 urtetik 16 urte arteko gimnasta gazteak ariko dira, denboraldian konpetituko duten modalitateetan. Proba gaur goizeko 11:00etan hasiko da, kiroldegiko beheko pistan. □



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506



Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI



Matrikula zabalik etapa guztietan (2 urtetik - 16ra)
Otsailaren 18tik martxoaren 1era Laubidietan

Orduetgia:

⇒ 9:00 - 13:00
⇒ 14:30 - 17:30

Ikastetxeak bisitatzeko aukera eskaintzen da.

Laubidieta z/g.- 20120 Hernani ☎ 943 555 423 - Faxe 943 331 936
Informazio gehiago gure Web gunean: www.langile.com

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxita.

ELIZATXO
Ikastola

Elizatzxo 12 - Florida 28



baikara

Gipuzkoako Ikastolen
Gurasoen Federazioa

⇒ Matrikula: Otsailaren 18tik martxoaren 1a bitartean.

⇒ Non: Elizatzxo 12 (HH-LH) - Florida 28 (BHI)

⇒ Orduetgia: 9:00etatik-12:30etara / 14:30etatik-16:30etara

⇒ Telefonoak: HH-LH: 943 55 72 24 - BHI: 943 55 26 33

Ikastetxea ikusteko aukera: Otsailaren 21 eta 28an arratsaldeko 17:00etan.



Etxeak botatzen atzo goizean; bi makina aritu ziren lanean.

Antzolan etxeak bota dituzte protekzio ofizialeko 96 egiteko

■ Eusko Jaurlaritzak egingo ditu etxeak ■ 48, hernaniarrentzat dira ■ laztik asignatuak daude pisuak ■ 2003ko udaberrirako bukatzea espero da.

ATZO goizean bota zituzten Antzolanako 24, 28 eta 30 etxeak. Goizean goiz hasi eta eguerdirako berdindu zuten ingurua. Bloke hauek zinko-erretatik *Cuesta de la Muertera* bidean zeuden, kurtidora

dagoen ingurutsu horretan.

Toki horretan bertan dihoaz babes ofizialeko 96 etxebizitzak. 48na bizitzako bi bloke dituzte egitekoak. Pisu horietatik erdiak dira hernaniarrentzat: 48.

2003an bukatzeko

Ia urtebete bada jendeak eskariak egin zituena. Dagoeneko asignatuak daude pisuak, eta bukatu, 2003ko udaberrirako bukatzea espero du Eusko Jaurlaritzak. □



Txapeldunak merezitako saria jasotzen.

■ ERREMONTA

Zeberio II eta Iriarte Txapeldun

ATZO jokatu zen finala erremon-teko binakako txapelketan. Zeberio II eta Iriarte 40-37 irabazi zuten Eizagirre eta Altuna I-en kontra. Eizagirre eta Altuna I aurretik joan ziren partidu guztian, baina, bukaeran nekeak erasan zien. Txapeldunak 33-37 zijoazen galtzen, baina, azken 7 tangoak segidan egin zituzten. Emozio izugarria, bukaeran. □

■ FUTBOLA

Bergara 1-Hernani 1

IRABAZTEKO zorian izanagatik, puntu bakarra ekarri zuten Hernanik. Hernaniarren gola Bereziartuak egin zuen lehen zatian. Etxekoek partidua bukaeran berdindu zuten. □

■ BOLA

Gaur, Olaberrian

BOLARIAK Olaberrian dira gaur Erregularitate Txapelketan. Lehengo astean Aian ziren; hirugarren Antonio Mi-ner gelditu zen eta bosgarren Joxe Zapirain (46na brila). □

■ WATERPOLOA

Hernani B-Easo gaur kiroldegian

Gipuzkoako liga jokatzen ari dira Hernaniko taldeak. Gaur bigarren taldeak jokatuko du kiroldegian, 13:00etan. □

■ HITZ BITAN



Muslariak eta ikusleak osteguneko finalean.

✓ ELUR TXORI ELKARTEA

Apaolaza-Peli eta Txatxon txapeldun musean. Ostegunean jokatu ziren Elur Txoriko mus txapelketako finalak. Bikoteka: Txapeldun Apaolaza-Peli eta bigarren Bilbao-Tturko. Buruz buru, berriz, Txapeldun Txatxon eta bigarren Bilbao.

✓ OIALUME

Akelarre taldearekin dantzaldia izango da gaur. Iganderoko moduan dantzaldia da gaur Oialumen. Akelarre taldea ariko da, arratsaldeko 19:30etan hasita.

✓ BANDA

'Inauterietako pinata' kontzertua gaur. Hernaniko bandak kontzertua eskainiko du gaur, udaletxeko arkupeetan. Egurdiko 13:00etan hasiko da.

✓ UMEENTZAT JOKOAK PISZINAN

Jokuak eta monitoreak gaur goizean. Igerilekuan jokuak egingo dituzte gaur, 10:30etatik 12:30etara. Bi monitore eta joku mordo bat egongo dira aukeran. Gurasoek umeak monotoreekin utzi edo eurak jolas egin lezakete umeekin. Bi kale hartuko dituztenez igeri egiteko aukera ere izango da. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Portu auzoko Shangai taberna saldu edo alokatuko nuke. Interesatuak deitu: **600 850 400** (Marian).

Etxea daukat salgai Latsunbe Berrin. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea, jardina eta terraza. Prezioa negoziatzeko. **943 550581 - 943 555629**

Hernani Institutua

A. Iturriaga - K. Labaka

LANGILEEN FORMAKUNTZARAKO IKASTAROAK
%100 ean HOBEZUZek SUBENTZIONATUAK
Gaitasun profesionalen sistema 2002ko URTARRILA-EKAINA

Ikastaroak	Orduak	Hasiera	Amaiera
MEKANIKA ALORRA			
Cad-Autocad	45	02/02/25	02/03/21
Kalitate Kontrola	40	02/02/25	02/03/19
Neumatika	30	02/04/08	02/04/24
Cad-Autocad	45	02/04/08	02/05/02
Errepresentazio grafik. fabrikaz. mekanikoan	60	02/04/08	02/05/14
Makina osagarriak	60	02/04/08	02/05/13
ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA ALORRA			
Inst. domotikoen disein.eta egitura Sist. Zentr.	50	02/02/20	02/03/21
Antenen instalaz. montai eta mantenim	30	02/03/04	02/03/20
Instalatzaila karneta ateratzeko prestakuntza	60	02/04/08	02/05/13
Automatismo elektromekanikoak	40	02/04/15	02/05/07
Instal. Domotikoen Diseinu eta konfig. BW EIB	65	02/04/15	02/05/23

Ikastaro guztiak Asteleheneetik Ostegunera emango dira
17:30etatik 20:30etara.

* Interesatuak eskaera inpresok aurkeztu beharko dituzte. Zentruan jaso daitezke izen emateko epea ikastaroa hasi baino 4 egun lehenago itxiko da kasu guztietan.
* Informazioa gehiago: Karmelo Labaka 7 zentroan - Tel. 943 551958 - Fax. 943 330899

e-maila: hernani@hernanibhi.hezite

URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

Matrikula: **otsailaren 18tik martxoaren 1a bitartean.**

Non: **Gay Mur eraikina, Larramendi 18**

Orduetgia:

9:00-12:30 / 14:30-17:00
Telf: 943 55 04 72



SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

▶ Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
▶ Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
▶ Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
▶ Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
▶ Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
▶ Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
▶ VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
▶ Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
▶ Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
▶ Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
▶ Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro